

Txapelokerrak eta memoria zaharra

Deia, 1983-08-03.

Lau belaunaldi bildu gara etxean Deun Iñaki bezperan: 84 urteko ama, senar emazteok, gure bi alaba eta horietako baten hamazazpi eguneko haurra.

Seme zaharrena atzerrian bada ere, seinale polita izan da elkar sentitzean sumatu duguna.

Haurrak eta beroak agintzen duten biagoa bota eta gero Bidasoako bokalera begira dagoen laugarren bizitzeko terrazatxoan eseri gara guztiok, haurra seaskan lo, gaurko haize alper-epela bizkortu zain. Bat batean egazkin hotsa, gero eta hurbilago eta zaratatsuago eta hemen dugu balkoi aurrean zerutik zintzilik bezala helikopteroa, handia eta berdea, begi gorria keinuka, barruko gizonenak etxera so, miaketan!

Ez genuen inoiz, filmetan ezik, honelakorik ikusi!

Haurra jarri da nigarrez; ama, bi tronbosis jasan eta gero hitza asko moteldu zaio, gortu da, baina begiak ikusten duten pitin guztia agerkundeari josita uler ezin; guk Hondarribian gaur arratseko manifestazioaren berri ba dugu behintzat, bertako gazte bati, Pello Mindegiari, geratzen zitzaion begi bakarra ke-poto horietako batekin txapelokerrak Errenterian begi-begian asmatu ziotela eta!, itsutuko den beldur gara herrian. Herritasuna sakon sentitzen den Hondarribiari gaiztakeria hau sartu zaio bihotzeraino. Laster ditugu berriak: txapelokerrak kaleak ere hartu dituzte, tanketa eta guzti...

Ama geratu zait begira-begira, susmatu duena egia baita: "goardiazibilak?!", esan dit ahal duen moduan, eta eskutik heldu dit. Lasaitu dut ahal dutan bezala, eta bere baitan geratu itsasora begira... Nik neuk ez dut nire irudimena asko behartu behar ama ikusten jarri den filma nirean, neure baitan, pasatzeko: 1934ko iraultza, aitaren bila dator goardizibilak Hernaniko hiloba bati bi eguneko babeska eman diolako Ondarreta eta Guadalupeko fuertera eraman zuten; 1939: Bartzelonatik bueltan herriko txapelokerren muturrezurak ikustera behartu eta senarra eta semeak nondik nora zebiltzen galdera estuak; 1940: Alemanek Hendaiaraino heldu zirenean semea, neu, Donibanetik Andoainera etorri behar eta igandero agertu behar nuen kuartelera; 1942: Afrikara merkantziako begoi itxiaz osatutako tren berezian eraman ginuzten euskaldunak maiatzeko igande batez, eta astelenean goiz etxean zituen amak txapelokerrak, ina nora alde egin nuen. Bien bitartean haur egin berria den alabak kontatzen ditu manifestazioetan jasandakoak; hau da unetxo batetan gure sendiari senti arazi diotena.

Madrileko propaganda bizkorra izango da, baina gure herrian aspaldidanik ikusiak ditugun filmak ez dira hainbestez borratuko. Txapelokerren Lorca-txarolaren dirdirak aise esnatzen digu gure memoria zaharra.

Hilak bakarrik geratzen dira magia honetatik libre.

Haurrak ezin du ezer esan, baina esango diote haunditzen denean: hamasei egun zituela Hondarribian bere bistan, gertatuz, gure herriaren memoria zahar-beltza eten ez dadin.